

Astean **65** ordu lanean?

GUREKIN JAI DAUKAZUE!

Abenduaren 17an Europako Parlamentuak 65 orduko lan-astea ezartzeko direktiba bozkatu behar du. Proposamen lotsagarri hau ekainean bozkatu zuten Europar Batasuneko lan ministroek eta aurkako botorik gabe egin zuen aurrera. Frantziar Estatuak alde bozkatu zuen eta Espainiakoa abstenitu egin zen.

Langile mugimenduaren borroka gogorrari esker **1917an 48 orduko lan-astea lortu genuen. Mende bat beranduago 65 ordu lan egitea nahi dute.** Zer uste dute, ba? Lotsagabe hutsak direla esatea ez da nahikoa, haserretzea eta eskubiderik ez dagoela kexatzea ez da nahikoa. Ez diegu horrelakorik egiten utziko!

Lanari guztiz kateatzeaz gain, **negoiazio kolektiboarekin ere amaitu nahi dute.** Izan ere, lan-astea “akordio” indibidualen bitartez luzatu nahi dute, langile eta enpresarien artean zuzenean, horrela, langileok ez dezagun indarririk eduki eta enpresariak inposatu nahi digun edozer onartzera behartzeko. Direktiban akordioak “askatasun osoz” egindakoak izan behar direla esan arren, **denok dakigu enpresariak txantajea erabiliko dutela:** “egin lan ordu askoz gehiagoz ala ez dizut kontratua berriztatuko... onartu ala kalera botako zaitut”.

Neurri honek, gainera, **langabezia handituko du**, azken finean pertsona bakar batek egingo lukeelako gaur egun bi lagunek egiten duten lana; egunean 10 edo 12 ordu lan eginda, **lan istripuak areagotuko dira; lana eta familia praktikan ezin izango dira bateratu**, horrek hainbat jende lana uztera behartuko du eta beste behin ere emakumeak izango dira kolektibo kaltetuena.

“Europa soziala” deitzen diote, baina neoliberalismo eta kapital basatiaren Europa eraiki nahian dabilta: etorkinen eskubideak zapaltzen dituen “itzulera direktiba”, herri batean lan egin eta beste herri bateko lan baldintzak mantentzea baimentzen duen Bolkenstein direktiba, irakaskuntzaren pribatizazioa helburu duen Bologna prozesua, jubilazio adina atzeratzea era prestazio sozialak murriztea helburu duten politikak...

Orain Europatik datorren eta Estatu frantses zein espainolak onartu duten beste neurri bat ezarri nahi digute euskal langileoi. Honek argi uzten du **Euskal Herrian bizi eta lan egiten badugu, bertan erabaki behar dugula**, horixe delako inposatu nahi dizkiguten eraso guztiei aurre egiteko bidea.

Berdinak dira Gasteizeko eta Iruñako gobernu eta administrazioak, Estatuetakook, Europa mailakoak... enpresarien interesak babesteko eta langileok estutzeko orduan denak datoz bat. **Lanpostuak suntsitzeko, ordutegiak malgutzeko, espedienteak nonahi aurkezteko eta gure eskubideak are gehiago zapaltzeko aprobetxatzen ari dira enpresariak krisialdia. 65 orduko lan-astea bezalako neurriak al dira instituzioen erantzuna?**

Gurekin jai daukate! Duela mende bat langileok borrokatu eta irabazi genuen eta orain ere prest gaude geure eskubideak defendatzeko, borrokatzeko eta irabazteko. **Adi Euskal Herri osotik zehar burutzen ari garen mobilizazioetara eta gogoratu abenduaren 20an, 17:00etan, Iruñeako Gaztelu plazatik irtengo den manifestaziora ezin duzula huts egin!**

Ez 65, ez 60, ezta 48 ere. Euskal langileok 35 ordu!

langileok aldaketa!



MUNDUKO FEDERAZIO SINDIKALA

65 orduko lan astea
eurentzat

langileok aldaketa!

LAB

ez 65, ez 60, ezta 48 ere
euskal langileok
35 ordu!

langileok aldaketa!

LAB

Kapitalaren Europatik inposaketarik ez!

**Euskal Herrian
lan eta bizi,
berton erabaki!**

langileok aldaketa!

